

ERABAKIAK

ANTOLAKETAREN EGOKITZAPENA

LAB

langile abertzaleen batzordeak

KONFERENTZIA NAZIONALA
• 1995eko MARTXOA •

GARATZEN

2

KONFERENTZIA NAZIONALA

1995.eko MARTXOA • DONOSTIA

- E R A B A K I A K -

**ANTOLAKETAREN
EGOKITZAPENA**

SARRERA GLOBALA	5
ANTOLAKETAREN EGOERA	7
1.- SARRERA OROKORRA	7
2.- LABEN GARAPEN ORGANIZATIBOARI BURUZKO HAUSNARKETAK	8
3.- BESTE HAINBAT GAI	9
OINARRIZKO ARDATZ ERREFERENTZIALAK	11
SEKZIO SINDIKALAK - KUADROKETA ETA FUNTZIONAMENDUA	13
ANTOLAKETAREN EGOKITZAPENAK	15
SARRERA GLOBALA	15
1.- LURRALDEKO EGITURAK	15
1.1.- BATASUN LOKALA	16
1.2.- ESKUALDE BATASUNA	16
1.3.- HERRIALDEKO EGITURAK	18
a) HERRIALEKO IDAZKARITZA	18
b) HERRIALDEKO KONFERENTZIA	19
2.- EGITURA SEKTORIALA	20
- SARRERA	20
- EGITURA SEKTORIALAREN EZAUGARRIAK ETA EGITEKOAK	20
- EGITURATU BEHARREKO SEKTOREAK	21
- SEKTOREEN BARNE EGITURA - ORIENTABIDEAK	21
- TRANTSIZO FASEA - GAINONTZEKO EGITUREKIKO LOTURA	22
ARLOAK	23
BALIOANIZTASUNA ETA MILITANTZIA INTEGRALA	24

Lan munduan eta sozioekonomi mailan aldaketa sakonak gertatzen ari diren unean, eta Hego Euskal Herriaren egitura ekonomiko-industrialak eraso larriak jasaten ari delarik, gure III Kongresuak adierazitako erabaki eta definizioetan sakondu beharrean gaude, horrela, gure parte hartze sindikal eta sozioekonomikoa ahal den hobekien garatzen jarraitu ahal izateko. Honek indar bereziak eskatzen dizkigu, gure antolaketa-egitura eraberritu nahi badugu.

Azken urteotan gure erakundeak eraman duen dinamikak, hala nola beste gai batzuen eztabaida eta garapenari eman zaien lehentasunak, hauek LABentzat erabateko premia izanik ere, ez dute erraztu antolaketa-diseinuaren proiektzioak behar duen eztabaida sakona egitea, honek eskatutako arreta eskainiz.

Hauteskunde sindikal hauek produkzio eta zerbitzuetan aurrerapausu handia eman eta finkatzea lortu dutelarik, Sindikatuarentzat urrats handia suposa dezakete, baina aldi berean, gure antolaketa-sareak dituen hutsune eta akatsak zuzentzeko erabaki irmoak hartu behar dira eta honek talde-hausnarketa sakona eskatzen du, beste une batzuetan erakundeari dagozkion gaiei behar bezalako trataera ematea oztopatu duten inertziak gaindituz.

Beraz, honako lan honek, LABen antolaketarendiseinuari buruzko eztabaidak, batez ere bi helbururen inguruan jira dezala du oinarritzat: Lehenik eta behin, Kongresuan ezarritako ildo orokorrak jarraituz eta hortaz, bertan burututako hausnarketa mailan, antolaketaren eraldaketei ekin behar diegu, dinamikoak izanik ere, Sindikatuaren baitan berehala eta eraginkorki finka eta gara daitezten. Bigarrenik, aurrekoaren ondorioz, hurrengo Kongresu baterako (IV Kongresua) eztabaida eta hausnarketa baldintzarik egokienak sortu; bertan, antolaketa-gaiak garrantzi eta eraginkortasun handia hartu behar du, markatutako helburuak gauzatzeko aurrerapausuak eman ahal izateko.

1.- Sarrera orokorra

Azken Kongresuan finkatutako partaidetza eta lanerako lehentasunek ez dute ahalbideratu garapen organizatibo oso eta orekatu bat egokiro zabaltzerik. Lehentasun haiek, fase politiko-ekonomiko honetarako LABek ezarritako helburuei jarraituz egin ziren, eta erakunde honek bere garapenean eman beharreko urratsei buruzkoak ziren.

Hego Euskal Herriak bizi duen egoeran LABek bere gain hartu beharreko iharduera sindikala, sozioekonomikoa eta soziopolitikoa Sindikatuaren antolaketa-egiturak eta partaidetzak erabat bete ez dituztela nabarmena bada ere, erakundeak bere garapenean emandako urratsak positiboki baloratu beharrean gaude; azken Kongresuaren ostean LABek burututako erronka sindikalekin bete-beteen asmatu dugunaren ustean dugu (92.05.27ko Greba, LAB-ELA-CCOO arteko iharduera-batasuna, LAB-ELA arteko iharduera-batasuna, 94.01.27ko Greba, Otsailaren 19ko Manifestazioa, 94ko Maiazaren 1a,...); eta militantzia eraginkorragoa dela eta laneko gatazka eta arazoetan parte hartzeko gaitasun handiagoa duela ikus dezakegu.

Fase honetan, Sindikatuaren lehentasunak funtsezko bi parametrotan egon dira:

Lehenik, ingurune sindikalean eragin, Sindikatuaren egitekoa sustatu koalitatiboki ezberdina den ildo zabalaraziz, bertan sindikalismo abertzalea proiektu estrategikoaren bidez sindikalismo espainolari aurrez aurre jar dakion. Batez ere, Estatuak eta sindikalismo espainola sindikalismo abertzalearen okerrerako, lan erlaziotan uniformitatea bultzatzen ari diren egoeran gaudela. Hortxe kokatzen dira hain zuzen ELAekin batera emandako urratsak eta sindikalismo espainolarekin izandako aurrez aurreko liskarrak (ikuspegi estrategikoa); partaidetza mota hau gako soziopolitikoan integratzen da.

Bigarrenik, ELM (Euskal Langile Mugimendua) jasaten ari den errealitate latza ikusirik, eta gizartean dauden ahalik eta errebeldia sozialaren energia gehienak sindikatura ekarriz, erantzuna eman nahi zaio LABeko egoera sozioekonomikoari, behin eta berriz sortzen zihozazen arazo soziorabial eta ekonomikoari erantzuna eman beharrean militantzia "lur jota" utzi ditunak.

Nahiz eta sindikatuaren iharduera zalantzan jarri duten gatazka eta partaidetza eztabaidagarriak egon diren, balantze bateragarri bat egiten jarrita, orokorrean, kontsidera dezakegu LABek gatazketan izan dituen partaidetza indibidualak eta sektorialak, LABen jarrera eta kokaerak beti izan duten izaera borrokalaria eta alternatiboa frogatuta utzi dutela, egoera zehatzen zabalpen sozial eta konfrontazioen erronkei erantzutearekin batera. Hau guztia, oso partaidetza baldintza negatiboetan egin da, sindikalismo erreformatzailearen eraginpean (atzerapen ideologikoa, konformismoa, elkartasun eza, ikuspegi globalaren galera...), hala nola ELMen sektoreetan "sistema"ren diskurtsoa sartzen hasi dela.

Partaidetza ildo honek Sindikatuaren egitekoa indartzea ahalbideratu du; langileen artean zabaldu du LAB dela ELMko jarrera duin eta kontsekuenteenak biltzen dituen gunea; hauteskunde sindikaletan, sindikatuko "langile sarea"ren zabalpenak enpresetan, euskal gizarteko eragile sozial erreal gisa garatzeko baldintzetan koka gaitzan. Hau da, LABen garapenarekin batera gure presentzia ari gara finkatzen produkzio-sektoreetan, eta hau ezinbestekoa da orain, hemendik aurrera erakundearen garapena fase berri batean sartu ahal izateko, egungo egoera soziorabialari (langabezia, behin-behinekotasuna, langile klasearen zatiketa ...) erantzuteko helburua izango duena; aldi berean, gure botere sindikal eta sozialaren garapena sustatuz (Sindikatuaren egitekoaren erabateko garapena) ELMn eta gizarte guztian.

Partaidetza bikoitz horren garapen egokiak sindikatuaren aurrerapenean arlo berriak zabalduko ditu, bai maila kuantitatiboari dagokionez, baita erabateko eraginkortasun soziala izanez ere. Oso argi izan behar dugu gehikuntza kuantitatiboa ez dela "eraginkortasuna edota botere sindikala"ren parekoa, baldin eta partaidetza-praktika koherente eta alternatibo bat gauzatzen ez bada, enpresarien aurrean ekiteko orduan, edota gaur egun langabezia, desegituraketa ekonomiko-industrialak, desoreka sozialak... mantentzen dituen marko politikoari aurre egiteko garaian.

2.- LABen garapen organizatiboari buruzko hausnarketak

Sindikatuak azken urteetan izandako eboluzioak, berarekin batera antolaketa-garapenari eragin dio. Egitura eta dinamiken oso bilakaera irregularrak sortu dira, eta aldi berean funtzionamenduan bizioak hartuz joan gara, erakundeak eskatu dizkigun lan eta exigentzia mailak eraginda. Egitura finkotik kanpo ekin duten militante askoren aportazioa, dinamika eta erronken arabera anarkizatuz joan da, LABen partaidetza osoko ihardueran finkatu gabe. Hau guztia, bai lurralde mailan, baita sektorialki ere gertatu da.

Hau da, LAB dagoen tokian badago, lotu gabeko laguntza askoren aportazioei esker, eta nahiko anarkizatutako antolaketa-euskarrien bidez izan da. Dena den, urrats garrantzitsuak eman ditugu, gure etorkizunarentzat funtsezkoak direnak, baina orain LABen aurrerakuntzari eutsiko dion antolaketa-palanka berri bat landu behar dugu.

Lehen burututako egoeraren gaineko hausnarketa horiei (aurreko atala), antolaketa-garapen ez-zuzen horretan eragin duten elementuak edota faktoreak gehitu behar dizkiegu. Faktore hauek, justifikatiboak izan nahi gabe, bultzatu beharreko egokitzapen zuzenen bidean jarri beharko gintuzkete:

- a) Kongresuan onartutako antolaketa-ereduak ez du garapen egokia izan Sindikatuan, kongresuaurreko fasean erakundeak (batez ere Idazkaritza Nazionalak) antolaketa gaiari eskaini zion dinamika ahulak baldintzatuta. Oro har, antolaketa arloa, erakundearen dinamizazio eta sortzapen funtzioa, planifikazio konkreturik gabe dago eta egon da orain arte, eta beraz, ez da nahikoa garatu.
 - b) Egunero sortzen diren aldaera sozialak, eta gero eta handiagoa den desegituraketa, azken hau arrazoi ezberdinegatik ematen ari dena langile-klasean eta langile/enpresa menpekotasun-erlazioan aldaketa sakona sortzen ari dena; faktore biek ere orain arte ezagututakoa nabarmen aldarazten ari dira, antolaketa eta partaidetza mailan nahiko helduak ez zeuden aldagaiak sartuz.
 - c) Egituren tentsio soziopolitiko maila ahuldu egin da, partaidetza ildoan LABek burutu beharreko hausnarketa soziopolitiko hauek behar bezala integratu ez direlarik, eta maila sozioekonomiko eta sindikalean sakondu beharko genuke hausnarketa horien funtzioan. Hau guztia hausnarketa argi bat kontuan izanik: sindikatua sekula ez da izan azken hilabeteetan bezala, Ezker Abertzaleak duen orientabidean esanahi nabarmena duten eraldaketa politikoen eragilea (ELA-LAB iharduera-batasuna, bai eduki eta baita dinamikan ere)."
 - d) Orokorrean, hazkuntzaren eta antolaketa-egokitzapen ezaren krisia jasaten ari gara, gure partaidetza sindikalean zein sozioekonomikoan. Sindikatuaren hazkuntzak gure partaidetza zuzenaren sarea sendotu du ELMn, baina aldi berean, "boteila-lepoa" efektua sortarazi du antolaketan, egokiro zuzentzen jakin ez duguna.
- Kontuan izan behar dugu "antolaketa-egokitzapen eta hazkuntzaren krisi" horrekin batera, krisi ekonomikoaren okerragotzea etorri zaigula, eta honek giza-baliabide asko sartu dituela erantzuna emateko orduan.
- e) Sindikatuak, militantzia-maila askotan du nortasun krisia, prozesu politikoan gure erakundeak izan behar duen funtzioaren edota egitekoaren krisi ideologikoa. Oraindik ere askoren ustea da sindikatua beste dinamika batzuen azpitresna dela, ENAMen kanpaina orokorretarako abadagune-tresna hutsa dela, eta honek aparailuaren konfigurazioarekiko iragankortasun sentsazioa sortarazten du. Ondorioz, honek LABen garapen propioarekiko sinesgarritasun falta eta indar berezien gabezia ekartzen du.
 - f) Gure antolaketa-diseinuan ez ditugu kontuan izan partaidetza-krisia eta sortzen ari diren beste errealitate sozial berriak. Partaidetzaren beheraldiaren fase batean, ezin ditugu planteatu antolaketaren oinarriko gune gisa, sekzio sindikaletatik urrun dauden lurralde-egiturak, eta gero irizpide demokratiko eta batzarkideak erabili bere eraketa teorikoan (askotan, estalki ideologiko hutsak direnak).

3.- Beste hainbat gai

Goran aipatutakoekin batera, beharrezkoa da beste hainbat faktore osagarri adieraztea, sindikatuaren zabalpen eta partaidetzaren eraginkortasunaren egitura mailan eragiten dutenak guztiak:

- Sindikatuaren hazkuntzak, militante eta egituren funtzionamendu indibidual eta kolektiboan "tik" burokratikoak agertarazi eta garatu ditu. Jakin badakigu ez dela modu egokian eramaten ari lanak-ardurak banaketaren eta militanteak sindikatuaren arazo globalei eskaintzen dien aportazioaren arteko erlazioa. Gero eta kezka handiagoa ematen digu ikusteak egunez egun militante askok "autolimitazio" jarrerak hartzen dituztela, era horretan gure erronka kolektiboari aurre egiteko ezinbestekoa den tentsioa galduz. Aitortu behar dugu badagoela ere planteatzen ditugun erronkei erantzuten dieten militanteen euskarria.

Honen ondoren, gaiari ahalik eta era dinamikoenez ekiteko, kontuan izan behar dugu militantzia lanetan eta funtzioetan luzaro egoteak, militantziaren kontzeptzioan bertan desgaste gogorak eragiten dituela, eta halaber, oso argi izan behar dugu Sindikatuan ez gaudela dekretuz "bizi guztirako".

- Sindikatuan, militante-liberatuaren egituraren garapena ez da oso egokia izan. Hau da, gaur egun LABek sustatu nahi dituen lan eta iharduera askotarako, ez dugu dinamizatzaile egokirik, eta oinarritzko hutsune honek, egituraren garapenari berari eragiten dio bere osotasunean. Liberatuak abadaguneko beharrei erantzuteko, hutsune larriak betetzeko... sartu izan dira, baina erakunde gisa ekin beharrekoari buruzko bestelako irizpiderik gabe (euren egokitasunari begira).

Nabarmena da sarriaskotan LABen lanen aurrikuspen ezagatik hartzen direla erabaki hauek, hala nola, egiturek behar bezalako hausnarketarik ez egiteagatik partaidetza sozioekonomikoaren gainean. Beraz, egituraren hazkundera eztabaida-mahaian egongo den fasean, gai hau bideratu beharra dago.

ONARRIZKO ARDATZ ERREFERENTZIALAK

Sindikatuaren egituren finkapena, batetik erakundearen ezaugarriak eta bestetik gure partaidetza garatzen duguneko ingurune politiko-ekonomikoak baldintzatzen dute.

LABen ezaugarritza soziopolitikoak, euskal proiektu nazionalaren konfigurazioa gauza dadin sindikatu honek burutako erronka, langileak (sindikalismoaren bitartez) gizarte zuzen eta demokratiko bat sortzeko eragile sozialak izan daitezten, honek guztiak partaidetza sozioekonomiko eta soziopolitikoaren gaineko betebeharrak batzuk eskatzen dizkigu, gure partaidetza sindikalarekin bat etorri behar dutenak. Kontuan izan behar dugu gainera, une honetako fase politikoaren ezaugarri diren eta elkarrekin lotura duten bi kuestio. Batetik, PNV, PSOE, UPN alderdien apostua, gure herria lurralde-tasunari begira, ekonomiko-industrialki, sozialki eta kulturalki desegituratzen ari dena. Bestetik, euskal eraikuntza nazionalaren oinarriak sendotzera bideratutako dinamika sozialen ahulketa daukagu.

Ikuspegi honetatik, langileen erreibindikazio objektiboek heltzeko marko juridiko-politiko honen baliogabetza batetik eta sindikalismoaren partaidetza objektiboki bideratuko den eszenategi politiko-legegile berri bat zabaltzeko beharra bestetik, biek ere urrats mailakatuen osagarri izan behar dute, euskal proiektu nazional baterako bidea partaidetza aldi ezberdinetan indartuko dutenak. Eta, jakina, ildo honetatik, benetako eraikin demokratikoaren konfigurazioaren bidean, euskal gizarte funtsezko oinarri demokratikoak lortzeko burutzen ari den gatazkan, LABek partaide aktiboa izan behar du.

Sistemaren estrategiak, bere kontraesanen eta defendatzen omen dituen balore eta interesen emaitza denak, langile-klasearen zatiketaren ondorio denak, ezberdintasun sozialen gehikuntzaren eta enpresan sindikalismoaren partaidetzaren ahalmena gutxitzearen fruitu denak (lan-legeriaren erreformen bidez); estrategia horrek ere sindikalismoaren ihardueraren testuingurua aldarazi du. Aldaera hauek partaidetza ereduari eragiten diote, eta beraz, planteatu behar ditugun antolaketa-joerei ere.

Azken hausnarketa honen ildotik, begi bistakoa da oraingo marko juridiko-legalak sindikalismoaren partaidetza baldintzatzen duela euskal langileen interesen defentsan aritzeko orduan, bai markoaren izaera estatalagatik, baita bere eduki atzerakoagatik ere. Baieztapen honek profil orokorra izanik, behin-behinekotasunak eraginda eta lan-merkatuko erreformaren ondorioek baldintzatuta, enpresetan ematen ari den "langile eta sindikatu boterea"ren galera azpimarratu behar da. Euskal sindikalismoari oso gogor eragin dio azken urteetan CCOO-UGT-ELA sindikatuak burututako iharduera erreformista eta desideologizatzaileak, eta enpresetan eraginkortasuna galtzen ari da (Negoziazio Kolektiboa ikusi besterik ez dago). Hau, berriz ere diogu, legeriak eta azken urteetako inertziek sortarazi dute.

Beraz, enpresetan eraginkortasun sindikala errekuaratzearekin batera (eduki eta formei buruzko partaidetza motaren sakonketa), sindikalismoak enpresei eta testuinguru politiko-ekonomikoari zuzendutako eragiletza birrorekatu behar du, beti ere gizarte guztiak sustatutako iharduera sindikal, sozioekonomiko eta soziopolitiko batetik abiatuta.

Erreferentzi hauetatik (sindikatuaren ezaugarritza eta partaidetzaren testuingurua), helburuei begiratzen badiegu, sindikatuaren antolaketa-egokitzapenak izan behar dituzten iparrak, hauek dira:

- Lantegietako partaidetzaren sakonketa.
- Arlo sozioekonomiko guztian egin beharreko partaidetzaren globalizazioa, arlo honen egituretatik, langileek dituzten erreibindikazio guztiei (bai produkzio sisteman, baita hortik kanpo ere) erantzunez.
- Sindikatuaren ihardueraren gaineko sakonketa egin, izaera sozioekonomiko eta soziopolitikoko arazoaren aurrean eragile sozial gisa.

SEKZIO SINDIKALAK - KUADROKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Sekzio sindikala, sindikatuaren oinarritzko giltzarria da; bere bitartez marko espezifikoean parte hartzen dugu eta partaidetza eta afiliatuen ardurakidetzazabaltzen ditugu politika sindikalaren diseinuan.

Beraz, sekzio sindikalaren ahalbide guztiak garatzeko eragiten duten elementuak hainbat dira:

- Sindikatuaren egituretan zehar zirkulatzen duten partaidetza sindikalaren, sozioekonomikoaren eta soziopolitikoaren dinamikak bat egiten duten gunea da.
- Enpresan edo enpresetan eratzten da, eta bertan dauden afiliatu guztiek osatzen dute.
- ELMren egituraketaren ikuspegitik begiratuta, lan-munduarekin loturarik ez duten sektoreek osatzen dute ere, hala nola langabetu edo pentsiodunek, eta hauek euren iharduera-sekzio propioak eratzten dituzte beren lurralde-garapenaren baitan.

Argi dagoenez, aurreko orrietan definitu dugun bezalako iharduera sindikalaren ereduan, S.S.ren dinamika bi zatitan banatzen da:

- a) Enpresan bertan egin beharreko parte hartzea, izaera global eta espezifikokoaren bidez.
- b) Sindikatuaren egituretan izan beharreko partaidetza, esperientziak aportatzeko, Iharduera Sindikalaren dinamika-ri buruz erabakitze eta sindikatuaren proiektu eraldatzailean parte hartzeko.

Beraz, sindikatuarekin izan beharreko harremana, bikoitza da; egitura sektorialean parte hartzen du batetik eta lurraldetasun egituretan bestetik, honen bidez bere eta beste langileen praktika sindikala aberasteko.

Asko dira S.S.ren inguruan egin behar ditugun hausnarketak. Izan ere, orain arte ez gara gai izan sekzio sindikalak duen ahalmen guztia aktibatze, ondoko eragileen ondorioz: partaidetza sindikalaren sailetan izan dugun autolimitazioa, partaidetza aukerak dibertsifikatzeko antolaketa-egituren zorrotasuna eta sekzio sindikaletan iharduera sindikal baterako planifikazio eztabaidaturik ez izatea.

Askotan arduren delegazionismoan eta dependentzi lokarrien ugalketan jausi gara, bai ordezkariak sindikalari dagokionez, baita egitura zonalekin ere.

Hain zuzen, langileak euren askapen prozesuaren eragile aktibotzat hartuta ulertu behar dugu sekzio sindikaletan sustatu behar dugun dinamika berria.

Sekzio sindikal guztietan premiazko neurriak hartu beharra planteatzen dugu, bestela proposatzen ditugun iharduera sindikalaren planteamenduak hutsaren hurrengo izango dira.

1. Sekzio sindikalaren beraren hausnarketa, gaur arte burututako lanari buruzkoa, eta planteatzen dugun dinamika sindikalaren gaineko eztabaida.
2. Sekzio sindikalaren lan-plana landu, enpresan berak izan beharreko partaidetzari buruzkoa, eta sektore eta lurralde egituretako partaidetzaren gainekoa.
3. Sekzio sindikalaren eraketa eta garapena, ELMn gure sarrera zabaldu ahal izateko.
4. Sekzio Sindikalaren ordezkariaren ahalmenen erabilera.
5. Afiliatu guztiak Sekzio Sindikalaren dinamikan sartu eta parte hartzeko dinamikak garatu.
6. Iharduera Sindikalarekin koordinazio, parte hartze eta analisi dinamikak garatzeko, sektore eta lurralde egiturekin konpromezua hartu.

Sarrera globala

Aipatu ardatz erreferentziales, sustatu beharreko antolaketa egokitzapenak orientatzen dituzte. Diseinu organizati-
boak LABen ERAGINKORTASUN PROGRESIBOA bilatu behar du, ARLO SOZIOEKONOMIKO GUZTIAN. Horretarako,
lantegietako partaidetza sindikalaren eta sozioekonomikoaren sakonketa egokiro lotu behar du, produkzio-sistematik
kanpo dauden langile-klasearen beste kolektiboek defentsa garatzeko eman beharreko erantzun erreibindikatioarekin.

Gizarte eragile gisa, gure ezaugarritza edota eraginaren bidez, lantegiko eta gizarteko iharduereen arteko harreman
egoki bat egituratu behar dugu, langile-klasearentzat berehalako eta luzarorako erreibindikazioen alde beti ere, eta Euskal
Proiektu Nazionalaren eraikuntzarako urrats objektibo eta subjektiboak gehitzekotan.

Sarrerako hausnarketa orokor gisa eta aurrekoa abiapuntutzat hartuta, lurralde eta sektore egituren arteko bereizga-
rrien gatazka bertan behera utzi behar dugu, eta egitura sektoriala azpimailako izaeradun partaidetza itxietan uztea ekidin
behar dugu.

Gure ustez, egitura sektorialak, lurraldekoak bezalaxe, lantegietan sindikatuaren lan sozioekonomiko eta soziopoli-
tikoaren profila bere gain hartu behar du. Honen ondorioz, erakundearen zuzendaritza-egituretan toki propioa izan
beharko du. Bestela esanda, egitura biek (sektorialak eta lurraldekoak) gako soziopolitikoan bat egin behar dute,
partaidetza integrala soilik lurralde egiturarena dela uste izan gabe. Lurralde eta sektore egiturek, delegatu eta sekzio
sindikalen partaidetzarako guneak izan behar dute. Hori dela eta, nahitaezkoa da bi egiturek elkarrekin harreman estua
edukitzea, lurraldeko egitura izanik LABen iharduera sozio-ekonomiko eta sozio-politikoaren ildoaren erabakiak hartzeko
egitura bakarra, Sindikatuaren izaera orokor eta amankomuneko arlo guztietan. Honek ez die eragiten benetazko
iharduera osoa eraman ahal izateko, egitura sektorialek beren esparrutan hartu behar dituzten erabakiei.

Hortaz, aurkeztutako antolaketa egokitzapen mailak premisa hau du oinarritzat, nahiz eta funtsezko erabakiak hurrengo
Kongresuan eztabaidatu eta tratatzeko geratuko diren.

Honen ondoren eta egungo kongresu-erabakietatik abiatuz, oinarritzat jotzen dugu antolaketa egokitzapenei
heltzea, hutsune argiak zuzenduz, bi egituretan garapen orekatua bultzatuko duena. Garapen armoniko eta orekatu horrek
emango dizkigu partaidetza eraginkorra izateko beharrezko baldintzak; halaber, LABen IV Kongresuak antolaketa mailan
uztatu beharko dituen zehazpenak erraztuko ditu.

1.- Lurraldeko egiturak

Lehen aipatutako helburu horietatik abiatuz, lurraldeko egiturei buruz planteatzen ditugun egokitzapenak, hurrengoak
dira:

- Herrialde bakoitzeko herri nagusietan, piskanaka LABen egitura lokala artikulatzen joan. Maila lokalean, sindikatuaren
Iharduera sozioekonomiko eta soziopolitiko integratzeko tresna izango da (LAB gazteak, sekzio sindikalak...).
- Eskualdetasuna
- Gainontzeko egituren funtzionalitatea arindu, gaur egun egitura zonal gisa ezagutzen dugunaren eraldaketa handia
eginez. Egitura lokala bultzatuz, zonaren kontzeptuak eskualdera zabaldu behar du, eskualde egituraren gako,
iharduera sindikal eta sozioekonomikoaren egitura lokala eraginkorra egitea delarik.
- Lurraldeko egituraren inplikazioa, beste funtzio bat bezala, egitura sektorialaren garapen egokian.
Sindikatuaren staff eta aparailu guztietan eraginkortasun produktibo handiagoa (ekonomikoa, komunikabideak,

juridikoa, Fundazioa...).

1.1.- BATASUN LOKALA

EZAUGARRIAK EDOTA FUNTZIOAK:

Sindikatuaren zelula lokala, gure iharduera guztiak lantegi eta gizartean adierazteko oinarrizko markoan bihurtzen da, gure eragin soziala indartuko duen partaidetza aurrera eramateko gunean bilakatzen da. Enpresetan gero eta ordezkariak handiago izateari, partaidetza sozioekonomiko zabalgarri eta eraginkorraren garapena gehitu behar zaio, bertan parte hartuz, sindikatuaren beste arlo batzuk (LAB gazteak, Langabetuak, pentsiodunak, autonomoak...) protagonismoa eta erreferentziak hartuz joan daitezten.

EGITURA LOKALAREN HELBURUAK ETA EGITEKOAK.

- Sindikatuaren eraginaren garapena hedatu, maila sozioekonomikoan zein soziopolitikoan, lurraldeko ingurunearen egoera bereziaren ezagupenaren bidez, eta diseinu eta planifikazio zehatzak izanik, ekimen, proposamen, kanpainak... eta bestelako bitartez.
- Enpresen arazo bereziak koordinatu, lurraldearen markoan.
- LABek iritzia eman eta parte hartu behar duen gai soziopolitikoetan, sindikatuaren partaidetza sustatu: intsumisioa, euskara, presoekiko elkartasuna, giza eskubideen defentsa, gure herriaren eskubide kolektiboaren defentsa... Enplegu eta politika sozialeko dinamika bereziak garatu, baita partaidetza instituzionalean ere. - Herri mailako sekzio sindikalak dinamizatu, sektorialki buruturako lanarekin batera.
- Langileen interesak babestu eta lantegietan partaidetza sindikala erraztuko dituen zerbitzuak eskura jarri (aholkularitza sindikala).

OSAKETA

Egitura lokalaren osaketa eta zehazpen konkretua Kongresuaren esku egonik, eta egitura horretan oso errealitate ezberdinek eragiten dutelarik (herriaren egoera sozioekonomikoa eta sindikatuaren garapen propioa), bere nondik-norako orokorrak baizik ez ditugu adieraziko:

- **Egitura lokalaren dinamizatzailea** - Pertsona hau, herrian sindikatuaren partaidetza bultzatzeko gakoa da. Eskualdeko goiko egiturarekin harreman organikoa mantentzen duen militantea da.
- **Sekzio sindikalen ordezkariak** - Enpresa Komiteko ordezkariaren egitekoa eta sekzio sindikaleko ordezkariarena berezi behar dira. Enpresetako (batez ere enpresa handietako) delegatu sindikaletako batek, sindikatuaren egitura lanekin lotura izan behar du, sindikatu eta sekzio sindikalaren arteko zubia izanik.

1.2.- ESKUALDE BATASUNA

Egitura lokalean kokatutako partaidetzaren oinarritik abiatuta, ezin dugu eskema berdinarekin mantendu egungo egitura zonala. Goragoko gainontzeko egituren aportazio eta eztabaida dinamikan sartutako egitura gisa, uste dugu zonaren kontzeptu geografiko-demografikoak zabalpen handiagoa izan behar duela, erakundearen «erdiko» egituren

funtzionamendua erraztu eta arindu nahi badugu (Herrialdea-Eskualdea).

ESKUALDE BATASUNAREN EZAUGARRI ETA FUNTZIOAK

Eskualde egitura honen ezaugarri edota funtzioei buruz, zera adierazi behar dugu:

- Egitura lokalaren garapena, bere ihardueraren koordinazioa eta ingurune horretako gatazka garrantzitsuenen partaidetza sindikalaren jarraipena, egitura honek jarraian garatu beharreko lanen elementuak dira.
- Batasun lokalek garatutako gizarte politika, enplegua... dinamika konkretu hauen koordinazioa egin.
- Sindikatuaren politika orokorraren dinamizazioa, bere organoen ebazpenen arabera eta dagokion markoan gauzatu.
- Eskualdean, ordezkaritza politikoa eta juridikoa eraman.
- Egitura lokal guztientzako prestakuntza eta zerbitzu juridiko-ekonomikoak.
- Lokal eta beharrezko tresnetaz baliatu, bai egitura sektoriala baita batasun lokalak ere.

ESKUALDE EGITURAREN OSAKETA

Egitura honen oinarritzko osaketa, hau izango litzateke:

- **Eskualdeko Iharduera sindikalaren arduraduna** (liberatua), eskualde bakoitzean LABen partaidetzaren dinamizazioaile eta egiturazkoile bihurturik. Gatazketan, negoziazio kolektiboan... eraginkorki aportatzeko prestakuntza egokia izango duen militante liberatua.
- **Eskualdeko antolaketa arduraduna** (liberatua), horretarako egindako planifikazioaren bidez, batez ere egitura lokalak finkatu eta dinamizatzea dedikatua, hala nola bere partaidetza eremutik garapen sektorialean parte hartzea.
- **Batasun lokal bakoitzeko arduradunak** - Batasun Lokal bakoitzeko arduradun edota dinamizazioaileak egitura honetan egongo dira, sindikatuaren arazo orokorretan parte hartuz eta ezagutuz, bere ingurune lokalean landu eta garatu ahal izateko.

Beste egiteko batzuk (propaganda, zehazten denen afiliazioa...) ingurune lokal edota eskualdekoan egon beharko lukete, tokian tokiko ezaugarrien arabera, baina beti ere «bertikaltasun» eragozleak eta antzuak ekidinez.

ESKUALDEEN SAILKAPENERAKO PROPOSAMENA

Eztabaidatu eta zehazteko lehen proposamen gisa, honako hau aurkezten da:

GIPUZKOA: Oarso Bidasoa
 Donostia Aldea
 Tolosa-Hernani (Beterri)
 Goierni
 Deba-Kosta

- BIZKAIA:** Ezker Aldea-Enkarterriak
Bilbo Aldea
Busturi-Lea Artibai
Txorierrri-Mungia-Ipar Uribe
Durango-Arratia-Hego Uribe
- ARABA:** Gasteiz-Lautada-Arabako bailarak
Errioxa
Aiala-Orduña
- NAFARROA:** Iruñea aldea
Bortziri-Leitza
Sakana-Irurtzun
Tafalla-Lizarrar-Tutera
Zangotza-Irunberri

1.3.- HERRIALDEKO EGITURAK

Gaur egungo esperientziak, Herrialde egituretan bateratasun eta eraginkortasun gabeziak daudela agerrarazten digu. Iraunkorra, Idazkaritza eta Konferentzia, nortasun propioa hartzen ez duten egiturak dira, eta hauek, gaien, komenigarritasunaren... arabera erabiltzen dira; funtzionamendu bezala, honek bukatu behar du, eta egituren paperen zehazpen argi, konkretu eta eraginkor baten alde jokatu behar dugu.

Gai honi dagokionez eta eskualdetasunari begira, bi egiturak mantentzea ez dugu eraginkor eta erabilgarri ikusten (Iraunkorra eta Idazkaritza), hauek behin eta berriz errepikatzen baitituzte eztabaidatu beharreko gaiak, zaila egiten delarik egitura bakoitzak heldu beharreko gaia zehazteko muga jartzea.

Honen arabera, Herrialdeko egiturak bi markotan konkretatuko dira: Herrialdeko Idazkaritza eta Herrialdeko Konferentzia, eta beraz, «iraunkorra» desagertuko litzateke, baliorik gabeko eta eraginkortasun erreal zaileko organo eragilea izateagatik.

a) HERRIALDEKO IDAZKARITZA

Herrialdeko Idazkaritza, egitura guztiak dinamizatzeko ardura duen Herrialdeko Zuzendaritza organoa da, eta goragoko egituraren (nazionala) eztabaida eta aportazio dinamikan integratuta dago.

EZAUGARRIAK ETA FUNTZIOAK

- Sindikatuaren Iharduera sindikalaren eta sozioekonomikoaren diseinu eta dinamizazioa eraman, zuzendaritza organo konfederalen zehazpen eta ebazpenak abiapuntutzat hartuta. Gainera, gai ezberdinei buruz sortzen diren eztabaidetan parte hartu beharko du.
- Lurralde ingurune horretan ihardueren koordinazioa egin, baita maila horren edo maila baxuagoen egitura-garapena ere.
- Garatu beharreko gizarte politika, enplegua... eta gai soziopolitikoaren dinamiken koordinazioa eta sustapena egin.
- Parte hartze instituzionalaren dinamizazioa egin dagokion ingurunean, baita ordezkari politiko eta juridiko ere.
- Prestakuntza eta zerbitzu juridiko-ekonomikoen armonizazioa eta planifikazioa egin eskualdeko eta herriko egitura guztientzat.
- Beharrezkoak diren egoitza eta bideetaz baliatu, bai egitura sektoriala, baita lurraldekoak ere.

OSAKETA

Herrialdeko Idazkaritza, ondokoek osatuko lukete:

- **Herrialdeko Koordinatzailea**- Herrialdeko arlo guztietako militante koordinatzailea, komunikabideen aurrean pertsona publikoa eta Idazkaritza Nazionalako eta Exekutiboko partaidea, herrialdearen orde.
- **Herrialdeko antolaketa arduraduna** - Antolaketa-garapen lanetarako liberatutako militantea, eskualde eta herriko arduradunekin koordinazioan ihardungo duena. Eskualde eta herrietan mugikortasun handia duen pertsona izan behar du, erakundea sortu eta oinarritzko lanak aktiboak mantentzeko dinamismoduna. Bere funtzio globalari begira, ardura hau Herrialdeko Koordinatzaileak har lezake.
- **Herrialdeko Iharduera Sindikalaren arduraduna**- Herrialdeko iharduera sindikalaren sustatzaile eta koordinatzailea.
- **Eskualdetako Iharduera Sindikal eta Erakunde arduradunak**- Eskualdeko egitura beraz, bere bi ordezkari gorenek ordezkaturiko dute, sindikatuak iharduten duen gai guztien trataeran protagonismo handiagoa izanik.
- **Prestakuntza arduraduna**- Prestakuntzak sindikatuaren «guadiana» izateari utzi behar dio, eta antolaketa eredu honen garapenean toki eta garrantzi estrategikoa hartu behar du. Horregatik, funtsezkotzat jotzen dugu lurraldeko egitura guztietan kokatzea.
- **Arduradun sektorialak**- Sindikatuaren zuzendaritza nazionalako organoek aukeratutako Herrialdeko sektore guztietako arduradunak.

Trantsizio fasean, negoziazio kolektiboa hartuko lukeen egitura sektoriala sendotu artean, ardura hauei «Negoziazio Kolektiboaren Arduraduna» gehitu beharko litzaieke.

b) HERRIALDEKO KONFERENTZIA

Herrialdeko konferentzia, maila horretan eztabaida eta erabaki organo gorena bezala konfiguratuko litzateke, eta herrialdeko arduren aukeraketa bere gain egongo litzateke (Herrialdeko Idazkaria, Erakunde Arduraduna, ...).

Herrialdeko Konferentzia, maila horretan sindikatuaren lan orokorraren plana finkatzeko arduraduna izango da, eta Konferentzia Nazionalan zehaztu beharreko gai guztien trataerari helduko dien organoa izango da.

OSAKETA

Herrialdeko Konferentziaren osaketa, ondokoa litzateke:

- **Herrialdeko Idazkaritza**
- **Eskualde Batasunak**

- Herrialdeko Staff-ak
- Herrialdeko batzorde sektorialak.

2.- Egitura sektoriala

SARRERA

Lanean aipatutako ezaugarri orokorrak, eta orain arte burututako garapen sektorial irregularra abiapuntutzat hartuta, askoz ere urrats zehatz eta praktikoagoak eman behar ditugu egitura sektorialaren sendoketari begira. Antolaketa-aldaketen ondorioz ezarriko genituzkeen helburuak, hurrengo ildotik joango lirake:

- Egitura sektorialaren garapena, iharduera ekonomikoaren kontzeptupean.
- Lantegiaren parte hartzean sakondu, garatu beharreko abadaguneak, perspektibak, arazoak eta erreibindikazioak ahalbideratuko lituzkeen hausnarketa eta koordinazio sektorial mailak izanik.
- Egitura sektorial eta lurraldeko egituraren arteko bategite progresiboa, sindikatuaren iharduera sozioekonomiko eta soziopolitikoaren artean bizipen integrala eta osagarritasuna finkatuz.

Adierazitako helburuek halaber, ordezkari eta afiliatuak sindikatuaren ekinbideetara gerturatu behar dituzte, euren partaidetza erraztuz eta beraz, LABen barne eta kanpo bizitzaren partaide aktiboa bihurtuz. Sindikatuaren hazkuntza fasean, eta antolaketak behar bada egin duen egoeran, egitura sektorialak sindikatuaren dinamika globalari aportazio berriak ekarriko dizkion markoa izan behar du.

EGITURA SEKTORIALAREN EZAUGARRIAK ETA EGITEKOAK

Adierazi dugun bezala, egitura sektorialak eta lurraldekoak, gero eta gehiago elkarlotzera jo behar dute, beren partaidetza dinamikan, LABen iharduera sozioekonomiko eta soziopolitiko eta lan arlo guztiak sartzen joanez. Bere ezaugarri izango den premisa orokor honetatik abiatuta, eta ezarritako helburuei erantzuteko, egitura sektorialak ondoren aipatutakoen tankerako egitekoei erantzun behar die:

- Egoeren diagnosian asmatu ahal izango dituzten, aurrikuspenak bereiztuko dituzten eta euskal eraikuntza nazionalerantz zuzenduta, langileei aldeko alternatibak aurkeztuko dizkien partaidetza sozioekonomikoa garatu enpresa eta sektorean, hausnarketa eta koordinazio sektorialen parametroetatik abiatuta.

Hau da, baldintza analitiko, informatibo eta partaidetza-baldintza hobereenen bidez eman behar diegu irtenbidea langileen arazoei, gaitasun alternatiboa garatu ahal izateko eta inertzia defentsibo edo etsipenezko joera hutsetan erortzea ekiditeko.

- Gatazken aurreko erantzun sektorialaren koordinazioa. Lantegietako eragin sozial handiko gatazken aurrean, honi eman beharreko erantzun estrategiko eta mobilizazioen gaineko erabakia, lurraldeko egiturekin koordinazioan hartu behar dira.
- Negoziazio Kolektibo sektorialeko parte hartze plana, beti ere horren inguruan hartutako erabaki nazionaleri jarraiki. Sektore eta azpisektore bakoitzerako Plataforma erreibindikatiboa, negoziazio mekanika, mobilizazioak... hauen inguruko estrategia finkatzea, egitura sektorialaren ardura izango da.
- Prestakuntza sozioekonomikoen dinamiken garapena, Prestakuntza Nazionalarekin koordinazioan, eta ezaugarri sektorialen araberakoa.

- Sektoreko langile eta afiliatuekin komunikatzeko bideak finkatu. Aldizkariak, buletinak, batzar sektorialak... egitura sektorialaren eraginkortasuna garatzeko komunikazio tresnak izan behar dute.
- Afiliazio planen sustapena sektorean, lehen aipatutako komunikazio bideak oinarritzat harturik.

EGITURATU BEHARREKO SEKTOREAK

Planteatutako helburuei erantzuteko, egitura sektoriala sektore-ekonomikoaren ikuspegitik eraiki behar dugu, eta ez ordea, ikuspegi funtzional edota Negoziazio Kolektiboaren arabera.

Sektore ekoizleen barne eta kanpo konplexutasuna dela eta, garatzen dugun egitura sektorialaren eredua edozein delarik ere hutsuneak izango ditu, baina ikasiz egingo da bidea.

Argi dago iharduera sektorialaren hiru sail handi dauzkagula abiapuntutzat, baina hauek sindikatuaren osotasunean duten kokaerak ez du esan nahi egitura sektorialaren barnean ere hala banatu behar denik: Industria-Sektorea, Sektore Publikoa eta Zerbitzu-Sektorea.

Hiru sail handi hauen ondorioz, hurrengo proposamena luzatzen dugu egitura sektorialaren garapenerako:

Industria-Sektorea:	Siderometalurgia eta Meataritza Orea, Papera, Kartoia eta Arte Grafikoak Eraikuntza, egurra, suberra, beiragintza eta zeramika Kimika eta Energia Arrantza Bestelakoak: Elikagai Industria, larrugintza, ehungintza... ..
Zerbitzu-Sektorea:	Merkataritza-Ostalaritza Bankuak, Kutxak eta Aseguruak Garraioak, Kaiak eta Aireportuak Komunikabideak (Prentsa, Irratiak, Telebista...) Bestelakoak: Bulegoak, Garbiketa...
Sektore Publikoa:	Osasungintza Publiko eta Pribatua Irakaskuntza Publiko eta Pribatua Administrazio Publikoa

Beste sektore berezi bat ere badago, elkartopo egiten duten bi arazoei erantzuten diena: Ekonomia Sozialaren sektorea. Hau, Kooperatibek eta Sozietate Mugatuek osatzen dute. Sektore honek lan-erlazio bereziak ditu, eta euskal produktiogintzan garrantzi handia du; beraz, sektore berezia osatu behar du nahitaez. Dena den, kontuan hartu behar da sektore honen estrategia enpresarialak, sektore ekoizleen dinamikaren barne diseinatua daudela eta hortaz, lehen aipaturiko egitura sektorialean parte hartu beharko lukete ere.

Atal honekin bukatzeko, sindikatuaren egoera eta antolaketaren testuinguru orokorra ikusirik, sektore guztien eraketa, fusioa...eta tankerakoak, Zuzendaritza Organo konfederalen erabakiak izango dira. Beharrezkoa da hau gogoan izatea, aurrera eraman beharreko prozesuaren garapen armonikoa ziurtatu nahi badugu bederen.

SEKTOREEN BARNE EGITURA - ORIENTABIDEAK

Lehenik eta behin argi geratu behar du sektoreen barne egiturek ez dutela zertan berdinak izan behar. Aitzitik, zuzendaritza-organo bakoitzak ikusi beharko du bakoitzaren garapen eta finkapena nola egin, bakoitzari eragiten dioten faktoreak aztertu ondoren (sektorearen ezaugarriak, azpisektore motak, sindikatua zenbateraino dagoen sartuta...).

Ez dugu inolaz ere nahi egitura sektoriala finkatuko duen organigrama, edota osaketa zehatzik (hau hurrengo Kongresuan eztabaidatu beharko da). Aldiz, nahiz eta guztiz homogeenak ez izan, etorkizunerako esperientziak izatea

ahalbideratuko diguten urratsak eman behar ditugu.

Hausnarketa honetatik abiatuta, egitura sektorialaren garapen horretarako, printzipio edota orientabide batzuk ezarri behar ditugu:

- Sustatutako egitura sektorialek, honako lan honetan adierazitako helburuak bete beharko dituzte, sindikatuaren partaidetzarako zailak diren edota "eduki eskaseko" garapen sektorialak ekidinez (Negoziazio Kolektiboa eta beste ezer gutxi).
- Egitura sektorialak, auzian dagoen sektore ekonomikoaren ezaugarri berezien bitartez, parte hartze sektorialaren gai nagusietan ordezkarri eta sekzio sindikalen partaidetza erraztuko duten metodoak bilatu beharko ditu.
- Kongresuurreko fase honetan, egitura sektorialaren garapena, nazional eta herrialde mailakoak izango da, beti ere ezaugarri eta dinamiken arabera. Batzorde Nazional Sektorialak, Sektorearteko Arduradun Nazionalekin koordinatu eta egitura sektorialaren antolaketa finkatuz joango dira.
- Egitura sektoriala, bere dinamika propioak eskatu ahala, joango da ardurak hartzen: Azpisektoreen ardurak, Komunikazio sektoriala, Negoziazio Kolektiboa, Prestakuntza...
- Ez dugu mugatu behar maila hauetako arduradun dinamizatzailerak izendatzera, horrela garapen sektorial bertikala sustatuko baikenuke, sektore bakoitzaren errealitatek urrunduz.
- Funtsezkoa da egiturek -lokalek eta eskualdekoek- jokatu beharreko papera, aparatutik eta antolaketa-arduratik abiatuta eta ardura sektorial hauekin koordinazioan, hala nola partaidetzazko egitura hauetara sekzio sindikalen zein delegatuen parte hartzea eta ekarpena bideratuz.

TRANSIZIO FASEA - GAINONTZEKO EGITUREKIKO LOTURA

Hurrengo kongresura arte iraungo duen trantsizio faserako, egitura sektorialek Sindikatuko gainontzeko egiturekin izango dituzten lokarriak finkatu behar dira. Ondokoa planteatzen dugu:

- Hasiera batean, Idazkaritza Nazionala eta Iharduera Erreindikatiboko Iraunkorreko kideak eta Sektorearteko hiru arduradunak izango dira egitura sektorialaren abiaraztea erraztuko dutenak.

Hauen bitartez, Batzorde Nazional Sektoriala garatuz joango da, eta honen lana izango da Sindikatuko egitura guztiek (Idazkaritza nazionala, Iharduera Erreindikatiboko Batzordea) sortutako informazio sozioekonomiko eta soziopolitiko guztia ezartzea, bere partaidetza sektoriala kokatu ahalizateko. Behar denean, erakundeko arduradunak ere Sektorearteko Batzorde honetan parte hartuko du.

Aldi berean arazo sektorialak ere erakundearen lurralde egituretara eraman eta bertan eztabaidatuko dira, horrela sindikatu guztian egokiro zabal eta trata daitezten.

Sindikatuan dauden arloak, eraberritu beharrean daude, oinarritzko bi beharrei erantzun ahal izateko:

- Batetik, lan honetan adierazitako iharduera ereduaren euskarri eta babes izateko, arlo teknikoak sustatu behar dira.
- Bestetik, Euskal Langile Mugimenduaren desegituraketaren kontra borrokatzeko, antolaketa maila espezifikoak garatu behar ditugu.

Ilido honetatik, honako hau burutzea planteatzen dugu:

- Arlo juridiko eta ekonomikoen lanerako plana.
- Ondoko hiru arlo tekniko espezifikoak behin-betiko landu, maila nazionalean behinik-behin:

Lan-Prestakuntza
Lanaren antolaketa
Osasun laborala eta ekologia

• Iharduera sindikalaren arloen garapenerako plana. ELMren desegituraketari erantzungo diona, eta bereziki kaltetuak dauden kolektiboak, sindikatuaren barnean borrokatuko diren kide aktiboak bihurtuko dituena; honi dagokionez, hurrengo arloen berehalako garapena planteatzen dugu:

LAB GAZTEAK
LAB LANGABETUAK
LAB EMAKUMEAK

Hala nola, pentsiodun eta autonomoak antolaketara eramango dituzten ekimen zehatzak. Arlo hauek, guztion dinamika bereziaren bidez indartu behar dira, sindikatuaren antolaketaren barruan beti ere, LABen lurraldeko dinamikaren jaulkipena bideratuz (maila lokalekoa batez ere).

BALIOANIZTASUNA ETA MILITANTZIA INTEGRALA

LABen erabateko dedikazioa duten militanteen kolektiboa hartzen ari den garrantzia handia, bai talde honen zabalpenean zein bere eginbeharretan, sindikatuaren eragin sozio-ekonomiko eta sozio-politikoaren garapenerako lan honetan azaltzen diren orientazioekin batera, bi faktore hauek talde honen izaerari, funtzioari eta erakundearekiko ardurei buruzko hausnarketak egitera behartzen gaituzte.

3. atalean burututako hausnarketa biei jarraiki, beharrezkotzat jotzen dugu gure erakundetik egokia ez den erlajazioa ekiditeko, hau da, talde horren barne-ardatzaren funtzionamenduaren burokratizazioerantzko joera saihesteko, neurri zehatzak finkatzea. Neurri hauek, LABen liberatu gisa ardura eta betebeharrak ezberdinen inguruan hartutako erantzukizunetik abiatuz dinamika ezberdinak eraldatu behar dituzte, bai dedikazioari baita eginbeharren garapenari dagokionez.

Lanaren autolimitazioaren ildo horretatik garrantzizko inertzien, gure erakundearen behar objektiboek planteatutako erronka berriak ez onartzerik bultzatzen gaituztenak eta gure arduraren garapenaren planteamendu dinamikoetik ihes egitera eramaten gaituztenak alegia, hainbatetan irresponsabilitate eta finkapen jarreretan kokatzen gaituzte, eta horregatik tinko baztertu behar ditugu, horrek sortaraz dezakeen kostua geureganatuz, beti ere gure erantzukizunetik eutsiz.

Kontuan hartuta lehen aipatutako kontzeptuak askorentzat gogorrak izan daitezkeela, ezin dugu alde batera utzi euskal gizartearen ihardueraren garapenean gure sindikatuak izan beharreko eraginkortasuna orientatzeko hartzen ari garen ardura. Inork ez du zalantzan jartzen liberatu-talde horrek LABi egun egiten dion ekarpena, baina lanean jarraitu behar dugu eraginkortasun eza eta estankamenduzko jarrerak bertan behera gera daitezkeen. Horretarako argi izan behar dugu aldizka praktikan jarritako ekimen zuzentzaileek ezin izango dituztela egoera batzuk konpondu.

Militantzia sindikal osoak Sindikatuko liberatuak adibidetzat hartu behar gaitu, dedikazioari eta ilusioari begira, eta gizartearen LABek garatu behar duen funtzioetarako behar besteko tentsioa mantendu behar dugu. Egoera honetan liberatuak gure papera betetzeko gai ez bagara, gure ardurapean egongo da idazlan honetan adierazitako filosofia eta helburuek behar duten zabalpena ez izatea.

Hausnarketa hauetatik abiatuz, zera planteatzen dugu:

- 1) Sindikatuaren egiturek onartutako "Liberatuen Funtzionamendua"ri buruzko erabakiak bideratu, ikuspuntu eraginkor eta errealetik abiatuta.

Erakunde guztiak izan behar du burutu beharreko ebaluazioen emaitzen berri.

- 2) LABeko liberatu guztiek dugu politiko eta sindikalki gure burua prestatzeko betebeharra, erakundearen bestelako eginkizunak betetzen kokatu ahal izateko. Sindikatuan, balioaniztasuna bideratzeko era, sindikatuko militante guztiek prestakuntza beren gain hartuz izan behar du.

Prestakuntza politiko-sindikal horrek, tentsionamendu iraunkorra sortarazi behar digu, erakundearen erronka eta partaidetza helburuen eraginez, erakundearen garapen naturala eragotziko liokeen estankamendua ekidinez. Hau da hain zuzen ere, egun aurre egin behar diogun egoera.

- 3) Sindikatuko liberatuek, LABen gisako erakunde baten liberatuak izatearekin bat dagoen konpromezu maila edo militantzia sindikala geureganatu behar dugu. Guretako bakoitzari aisialdi eta gizarte-bizitza izatea eragotziko dion erritmo edo dinamika ezarri nahi izan gabe, egun denok ezagutzen ditugun gaietan sortzen diren inertzien aurka borrokatu behar dugu.

Lanarekiko jarrerak (bilerak, gure ekimenaren gizarte-zabalpenerako eginbeharrak, premiazko eginkizunak burutzea, konpromezu sozio-politikoak...) egoera zabal batetik finkatutako minimoak gainditu behar ditu.

- 4) Sindikatuko militante liberatu guztiek sindikatuaren egituretan erabat sartuta egon behar dugu, ematen dizkiguten funtzio eta ardurak geureganatuz.

Ildo honetatik, sindikatuan ardura administratiboak, teknikoak, juridikoak, ekonomistak... dituztenak, sindikatuaren gainontzeko militantearen egoera berdinean daude, beraz, eginbehar berriak edo dituzten eginbeharrak beste ardura batzuekin batera bereganatzeko gai izan behar dute. Noski, honen barne sindikatuaren organo guztiak sartzen dira.

Nolanahiko inertzia edo finkapen maila ekidin behar dugu. Guretako edozeinek egon behar du prest, bere ekarpen eta gaitasunaren ondorioz sindikatuaren organigramaren edozein funtzio bere gain hartzeko, ardura edozein delarik ere, eta maila nazionaletik zonalera arte.